

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	IRUDIKAPEN GRAFIKOA ETA MAKETAGINTZA (zeharkakoa)	Iraupena	70
		Baldintzatua	
Kodea	UF0307		
Lanbide-arloa	ERAUZKETA-INDUSTRIAK		
Lanbide-eremua	Harri naturala		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Harri naturaleko proiektuen diseinua eta koordinazioa	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Eraikuntzako irudikapenak (zeharkakoa)	Iraupena	190
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Datuen azterketa eta planoen irudikapena (zeharkakoa)	Iraupena	90
	Dokumentuak egitea eta artxibatzea (zeharkakoa)	Iraupena	30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0638_3 ERAIKUNTZAKO IRUDIKAPENAK EGITEA gaitasun-ataleko LB4 eta LB5 lanbide-burutzapenekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Eraikuntzen edo eraikuntza-xehetasunen hiru dimentsioko irudikapena lortzea, maketagintzako teknikak erabiliz.

E1.1 Eraikuntza jakin baten maketa bat egiteko kasu praktiko batean, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela:

- Maketagintzan erabiltzen diren tresnak identifikatzea eta/edo deskribatzea.
- Maketagintzan erabiltzen diren material jakin batzuk identifikatzea, eta ordezkia edo irudika ditzaketen eraikuntzetako edo inguruetako material errealekin lotzea.
- Emandako maketa batean irudikatu behar diren lurzoruetako eta eraikuntzetako elementuen materialak proposatzea.
- Maketa jakin bat egiteko zer prozedura erabili behar den zehaztea, eta itxaroten den akabera eta girotzea lortzeko erabiltzen diren miniaturazko elementuak eta amaierako ukituak deskribatzea.
- Aurretiko eta goitiko planoetan emandako eraikuntzaren maketa bolumetrikoa egitea.

A2: Krokis edo marrazkien bidez definitutako eraikuntzen planoak egitea, aplikazio informatikoak erabiliz, eta beharrezko eskalak, formatuak, kodetzeak, errotuluak eta kotak baliatuz.

E1.2 Plano bat egiteko kasu praktiko batean, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela, eta irudikatu beharreko eraikuntzaren krokis eta marrazkietatik abiatuz:

- Planoaren konposizioa osatzea, aurreikusitako eskalak doituz, eta krokisak eta marrazkiak zehaztutako praktikaren arabera ordenatuz.
- Planoaren kodetzea osatzea, ohiko hitzarmena baliatuz eta legenda irudikatuz.
- Planoaren errotulazioa osatzea, baimendutako aldaerak proposatuz eta aplikatu beharreko araudia betez.
- Emandako eraikuntza-plano baten kotak osatzea, aplikatu beharreko araudia betez.
- Informazio gehigarria osatzea, kokapen-eskemak, orientazioa, koadro alfanumerikoak, sinbologia eta kartelak gehituz.
- Informazioa aplikazio informatikoaren bidez antolatzeko zer geruza behar diren zehaztea, eta geruzak erlazionatzea, biltegitratzeko, kontsultatzeko eta trukatzeko aukera izanik.

A3: Eraikuntza definituen aurkezpen animatuak sortzea hiru dimentsioko marrazkien bidez, aplikazio informatikoak erabiliz.

E1.3 Plano bat egiteko kasu praktiko batean, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela, eta irudikatu beharreko eraikuntzaren krokis eta marrazkietatik abiatuz:

- Marrazkiak proiektuan definitutako materialen arabera egitea.
- Proiekturako egokiak diren atzealdeak sortzea.
- Ereduaren argiztapen naturala eta artifiziala sortzea.
- Eredu argiztatuetan argazkiak eta sekuentzia-grabazioen ibilbideak sortzea.

Edukiak:

1. Eraikuntza-proiektuetako irudiak tratatzeko aplikazioak.

- Inportazio- eta esportazio-formatuak kudeatzea.
- Marrazkien egitura: pixelak, entitateak, solidoak, blokeak, objektuak, geruzak; geruza-kudeaketa; bertsio-kudeaketa; historiala.
- Irudien tratamendua.
- Kolorearen kudeaketa.
- Efektuak eta iragazkiak.

- Irteera grafikoaren administrazioa.

2. Hiru dimentsioko irudiak, modelatuak eta animazioak sortzeko aplikazioak erabiltzea.

- 3Dko marrazkia.
 - Solidoak.
 - Gainazalak.
 - boolear eragiketak eta 3D edizioa.
- Modelatua, argiztapena.
- Eraikuntzako 3Dko marrazkien animazioa.

3. Eraikuntzen maketak egitea.

- Maketagintzako tresnak.
- Maketak egitean erabiltako materialak: propietateak, erlazioa irudikatutako eta/edo ordezkaturako materialekin.
- Metodologia: maketak muntatzea eta desmuntatzea, bolumenak eta formak egiteko teknikak, akabera-teknikak.
- Maketen girotzea.
- Elementu gehigarriak miniaturan.
- Maketen argazkia.

4. Eraikuntzako dokumentu grafikoak egitea.

- Saillapena: krokisa, eskemak, marrazkiak, planoak, fotokonposizioak, aurkezpenak eta maketak.
- Plano-motak:
 - Kokapen-planoak.
 - plano orokorrak;
 - Xehetasun-planoak.
- Maketa-motak: errealistak, bolumetrikoak, azterketakoak, prototipoak, desmuntagarriak, sekzioka banatuak, solairukako garapena dutenak, topografikoak, argiztatuak, animatuak.
- Goitiko bistak, aurretiko bistak, sekzioak, luzetarako eta zeharkako profilak, perspektibak.
- Helburuak:
 - Proiektuan zuzenean nahiz sinbolo bidez irudikatu behar diren elementuak.
 - Kokapena, gauzatzea, aurredefinizioa, bistaratzea, aurkezpena.
- Kurbimetriak eta planimetriak.
- Planoen irakurketa:
 - Eskalak.
 - Sinbologia.
 - Errotuluak.
 - Kotak.
 - Orientazioa.
 - Informazio gehigarria (funtzioa, kartelak, testu-koadroak).

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF0306 Datuen azterketa eta planoen irudikapena.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Harri naturaleko proiektuen diseinua eta koordinazioa.